

# **Propuesta de “Acuerdo entre Eusko Alkartasuna, la Izquierda Abertzale, Alternatiba y Aralar para las Elecciones Generales del 20-N”**

## **1.- Introducción**

Las Elecciones Generales a nivel de Estado español son una oportunidad para profundizar en la nueva fase política abierta en Euskal Herria y, como consecuencia, para afianzar la adhesión social y el debate político que vayan haciendo irreversible tanto el tránsito hacia un proceso de paz y soluciones democráticas, como el avance hacia un cambio político y social desde posiciones soberanistas, independentistas y de izquierda.

Las interrogantes económicas y políticas en que se desenvuelve la política del Estado inciden de forma notable en el devenir de los nuevos tiempos políticos en Euskal Herria, pero en absoluto deben condicionar la apuesta de cambio político y social puesto en marcha en Euskal Herria.

## **2.- Contenidos y compromisos**

Quienes componemos esta coalición, adquirimos el compromiso de afrontar las elecciones generales del Estado español como Pueblo: tanto en el Congreso como en el Senado, actuaremos como representación de las ciudadanas y los ciudadanos vascos. Nuestra actuación tendrá como objetivo reivindicar los derechos nacionales que le corresponden a Euskal Herria – incidiendo especialmente en el reconocimiento nacional y el derecho a decidir que le asiste-.

Asimismo, y ante la grave situación de crisis económica que padecemos, las políticas socioeconómicas, temas que repercuten a las y los trabajadores vascos y a los sectores sociales más desfavorecidos de nuestra sociedad, tendrán gran protagonismo. Los representantes de la coalición exigiremos un Marco Vasco de Relaciones Laborales que permita a las instituciones y agentes económicos y sociales vascos disponer de los instrumentos de competencia jurídica para establecer políticas de empleo y protección social soberanas; defenderemos medidas a favor del empleo digno y de calidad, y lucharemos por la igualdad efectiva y real de todas las

personas.

En el marco de las políticas sociales se buscará la igualdad efectiva y real de todas las personas y el impulso de políticas públicas que fortalezcan la cobertura social. Así mismo, realizaremos una defensa inequívoca de modelos públicos en educación, sanidad y políticas sociales.

Nos comprometemos con la sostenibilidad ambiental y ecológica como guía de toda actuación política, y la defensa de toda estructura e infraestructura social que ayude la vertebración de Euskal Herria.

También incidiremos en lograr el reconocimiento inmediato que se les debe al euskara y la cultura vasca.

Nuestra presencia-participación en estas elecciones va a estar en consonancia con la fase del proceso político que vivimos actualmente. Una fase caracterizada por impulsar el cambio político y social que tenga como carril de desarrollo un proceso de paz definitiva y soluciones democráticas al conflicto histórico de naturaleza política que mantiene Euskal Herria con el Estado español.

Los acontecimientos políticos del último año han mostrado que el derecho a decidir está en la agenda de la sociedad vasca, incómoda y disconforme con un marco jurídico-político agotado y que no da respuesta a la reivindicación nacional. Somos conscientes de que la decisión sobre el futuro de Euskal Herria está en manos de la sociedad vasca, la única legitimada para tomar decisiones al respecto, pero también sabemos que hay aspectos prioritarios en materia de paz y normalización política en la que el Estado español es un actor necesario.

En este sentido, desarrollaremos la reivindicación de la Paz y la Normalización en base al desarrollo íntegro y la defensa e impulso de todos y cada uno de los términos recogidos en el Acuerdo de Gernika.

En consecuencia, los contenidos básicos que caracterizarán la alianza de cara a las elecciones del 20 de noviembre son:

-Normalización política - proceso de paz y soluciones democráticas -: Para la superación definitiva y estable del conflicto

debemos impulsar un proceso de diálogo y negociación hacia un acuerdo democrático incluyente pivotado en el reconocimiento nacional vasco y en su legítimo derecho a decidir libre y democráticamente su futuro, partiendo de la situación jurídico-política vigente.

-Reafirmación y exigencia de reconocimiento de Euskal Herria como nación con derechos democráticos nacionales.

-Defensa de ese sujeto nacional vasco bajo el principio de "Euskal Herria tiene la palabra y la decisión". Es decir, exigencia política de respeto a la voluntad democrática de los hombres y mujeres de los cuatro territorios de Hego Euskal Herria y teniendo en cuenta la realidad política de Navarra, adecuando ritmos y velocidades a la misma, respetando las decisiones de los navarros y navarras.

-Situación la reivindicación del derecho a decidir en una dimensión integral presentando a la sociedad vasca un proyecto nacional como sinónimo de un proyecto económico y social, para vertebrar una sociedad más justa, libre y solidaria.

-Avanzar en nuestra apuesta internacionalista por un nuevo modelo alternativo supone fomentar un proyecto europeo que respete los derechos de los pueblos y se rebele contra la imposición de los mercados apostando por una Europa democrática y social con base en los pueblos que la componen, no en los estados. En este sentido, rechazaremos medidas políticas económicas que pretendan laminar derechos económicos y sociales de los trabajadores/as para abordar una crisis económica creada exclusivamente por los especuladores económicos y financieros.

### **3.- Planteamiento**

Queremos crear un instrumento electoral que nos permita presentarnos como referencia de una nación que exige reconocimiento y derechos. En este momento histórico, vamos a decir alto y fuerte que frente al modelo político, económico y cultural español, existe una nación que quiere ser dueña de su destino, que demanda un escenario de paz definitiva, reconocimiento y soluciones democráticas en un proceso de cambio político y social.

Así pues, para la Izquierda Abertzale, Eusko Alkartasuna, Alternatiba

y Aralar "la partida" se juega entre Euskal Herria y Estado español. Por eso, apostamos por un instrumento electoral abierto a todas las culturas políticas que reconocen que Euskal Herria es una nación. Y, asumiendo el esfuerzo que una coalición conlleva, presentamos a la sociedad vasca una candidatura conjunta que responde a la demanda social mayoritaria en Euskal Herria.

## **Eusko Alkartasunaren, Ezker Abertzalearen, Alternatibaren eta Aralarren arteko Akordio Proposamena azaroaren 20ko Hauteskunde Orokorretarako**

### **1.- Sarrera**

Espainiar Estatuko Hauteskunde Orokorrek Euskal Herrian irekitako fase politiko berrian sakontzeko aukera bat dira eta, horren ondorioz, gizartearen atxikimendua eta eztabaida politikoa sendotzeko abagunea ere badira, betiere bai bake prozesua eta konponbide demokratikoak lortzeko bidea, bai ikuspuntu subiranista, independentista eta ezkerreko batetik aldaketa politiko eta sozial baten alde eman beharreko aurrerapausoak atzeraezin bihurtze aldera.

Estatuko politika mugitzen den zalantza ekonomiko eta politikoen eragin nabarmena dute Euskal Herriko garai politiko berrien bilakaeran, baina ezin dute baldintzatu, inolaz ere, Euskal Herrian abian dagoen aldaketa politiko eta sozialaren aldeko apustua.

### **2.- Edukiak eta konpromisoak**

Koalizio hau osatzen dugunok espainiar Estatuko hauteskunde orokorreari Herri gisa aurre egiteko konpromisoa dugu: Kongresuan zein Senatuan euskal herritarren ordezkari gisa arituko gara. Gure jardunak Euskal Herriari dagozkion nazio eskubideak aldarrikatzea izango du helburu, bereziki gure nazioaren aitortza eta hari dagokion erabakitze eskubidea.

Halaber, pairatzen ari garen krisi ekonomiko larria aintzat hartuta, politika sozioekonomikoek, alegia, euskal langileengan eta gure gizartearen sektore sozial kaltetuenengan eragiten duten gaiek, protagonismo handia izango dute. Koalizioko ordezkariok Lan Harremanen Euskal Esparrua exijituko dugu, euskal erakunde eta eragile ekonomiko eta sozialek enplegu eta gizarte babeserako politika subiranoak ezartzeko tresna eta eskumen juridikoak izan ditzaten; enplegu duin eta kalitatezkoaren aldeko neurriak defendatuko ditugu, eta pertsona guztien arteko berdintasun eraginkor eta benetakoaren alde lan egingo dugu.

Gizarte politikei dagokienez pertsona guztien arteko berdintasun eraginkor eta benetakoa lortzen ahaleginduko gara, bai eta gizarte babesa indartuko duten politika publikoak bultzatzen ere. Halaber, eredu publikoen aldeko zalantzarik gabeko defentsa egingo dugu bai hezkuntzan, bai osasunean, bai gizarte politiketan. Ingurumen eta ekologia-iraunkortasunak gidatuko du gure jokaera politikoa, eta Euskal Herria egituratzen lagunduko duen egitura eta azpiegitura sozial oro defendatuko dugu.

Euskarari eta euskal kulturari zor zaien berehalako onarpena lortzen ere ahaleginduko gara.

Hauteskunde hauetan izango dugun parte-hartzea bat etorriko da egun bizi garen prozesu politikoaren fasearekin. Fase horren ezaugarri nagusia aldaketa politiko eta soziala bultzatu beharra da, eta hori garatzeko bidea behin betiko bake prozesua izango da, Euskal Herriaren eta espainiar Estatuaren arteko izaera politikoko gatazka historikoari konponbide demokratikoa emateko.

Azkeneko urte honetako gertaera politikoek erabakitzeko eskubidea euskal gizartearen agendan dagoela erakutsi dute, euskal gizartea ez dagoela ez eroso ez konforme agorturik dagoen eta nazio aldarrikapenari erantzunik ematen ez dion marko juridiko-politiko honekin. Jakin badakigu Euskal Herriaren etorkizunaren gaineko erabakia euskal gizartearen eskuetan dagoela, bera baita horren inguruko erabakiak hartzeko zilegitasuna duen bakarra, baina badakigu, baita ere, bakeari eta normalizazio politikoari dagokionez lehentasunezkoak diren zenbait arlotan espainiar Estatu beharrezko aktorea dela.

Ildo horri jarraituz, Bakea eta Normalizazioa aldarrikatuko ditugu Gernikako Akordioak jasotzen dituen baldintza guzti-guztien defentsa, sustapen eta garapen osoaren arabera.

Hortaz, azaroaren 20ko hauteskundeei begirako aliantza ezaugarrituko duten oinarrizko edukiak honako hauek dira:

-Normalizazio politikoa - bake eta konponbide demokratiko prozesua -: Gatazka behin betiko eta modu iraunkorrean gainditzeko elkarrizketa eta negoziazio prozesu bat sustatu beharko dugu. Prozesu horrek euskal gizarte osoa barne hartuko duen akordio demokratiko bat bilatuko du, eta akordio horren oinarrian egongo dira euskal nazioaren aitortza zein bere etorkizuna, indarrean dagoen egoera juridiko-politikotik abiatuta, modu aske eta demokratikoan erabakitzeko duen eskubide zilegia.

-Euskal Herria eskubide demokratiko nazionalak dituen nazio gisa aitortua izateko eskakizuna eta aldarrikapena.

-Euskal subjektu nazional horren defentsa "Euskal Herriak du hitza eta erabakia" printzipioari jarraituz. Hau da, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako gizon-emakumeen borondate demokratikoa errespetatzeko eskakizun demokratikoa, betiere Nafarroako errealitate politikoa kontuan hartuta, erritmoak eta abiadurak errealitate horri egokituz eta nafarren erabakiak errespetatuz.

-Erabakitzeko eskubidearen aldarrikapena dimentsio integral batean kokatu beharra, euskal gizarteari proiektu ekonomiko eta sozial baten sinonimo izango den proiektu nazional bat aurkeztuz, gizarte justu, aske eta solidarioago bat egituratzearen.

-Eredu alternatibo berri baten aldeko gure apustu internazionalistan aurrera egiteak herrien eskubideak errespetatuko dituen eta merkatuen inposaketari aurre egingo dion proiektu europar bat sustatzea esan nahi du; alegia, Europa osatzen duten herrietan, ez estatuetan, oinarritutako Europa demokratiko eta sozial baten apustu egitea. Zentzu honetan, espekulatzailer ekonomiko eta finantzieroei bakarrik sortu duten krisi ekonomikoari aurre egiteko, ez ditugu onartuko langileen eskubide ekonomikoak eta sozialak suntsitzea xede duten neurri eta politika ekonomikoak.

### **3.- Azalpena**

Aitormena eta eskubideak exijitzen duen nazioaren erreferentzia bezala aurkeztea posible egingo duen tresna elektorala nahi dugu. Bizi dugun une historikoan espainiar eredu politiko, ekonomiko eta kulturalaren aurrean bere etorkizunaren jabe izan nahi duen nazioa badela esango dugu argi eta ozen, aldaketa politiko eta sozialaren prozesuan behin betiko bakea, aitorpena eta konponbide demokratikoen eskenatokia eskatzen duen nazioa.

Horrela, Ezker Abertzaleak, Eusko Alkartasunak, Alternatibak eta Aralarrek partida Euskal Herria eta Espainiako estatuaren artean jokatzeko delako aldarrikatzen dute. Horregatik, Euskal Herria nazio adela aitortzen duten kultura politiko guztiei zabalik dagoen tresnaren aldeko apustua egin dugu hauteskunderi begira. Eta, koalizioa egiteak suposatzen duen ahalegina onartuz, Euskal Herriaren gehiengoaren eskariari erantzun egiten dion hautagaitza bateratua aurkezten diogu euskal gizarteari.